

# Etahalaizanbazen

Testua: Koldo Leniz eta Aitor Iturbe

sar dadila



Se non è vero,  
è molto ben trovato



**Vero edo Ben trovato.** Hau izan zen KURIKeko lan taldeak pentsatu genuena gutun-azal marroi hartan zetozen egile ezezagunaren idatziak jaso eta irakurri genituenean. Hasieran, bat etorri ginen denok adar jotze bat izan behar zuela.

Lehen alean guk egindako txantxaren ordaina akaso? Merzitatkoa, edozein modutan.

Hala ere, badaezpada, halakoetan Sir Rotia Ebrutirengana jotzen dugu. Beti kanpokoak hobeak izatea... Eskarmentu handiko jakintsua, ondo baino hobeto ezagutzen du garai hura eta idatzi hartan agertzen diren pertsonaiak. Bere garaian lan neketsu eta luzearen ondoren lortutako datuak ezagutzen zituen egile anonimo horrek. Sinestezina iruditu zitzaion txantxa bat egiteko horrenbeste lan hartu izana.

Asko eztabaidatu ondoren, pentsatu dugu, gezurra nahiz egia izan, idatzi izenpetu gabeko haiek zuei eskaintzea. Erosi ditugun salneurri berean saltzen dizkizuegu. Hori bai, eskertuko genizueke egileari buruzko edozein susmo edo arrasto badaukazue, gu jakinaren gainean jartzea.

Jatorrizko idatziak gaztelaniaz idatzita dauden arren euskarara itzuli ditugu. Sarrera berriz, berak idatzitako berbeekin utzi dugu, jesuiten erretorikaz (erretolikaz Lekeition) goza dezazuen.

*A mis admirados creadores de la revista Curik (sic) de Lequeitio.*

*Permitidme antes de nada disculparme por el carácter anónimo de mi escrito. Pese a la proliferación de novelas y relatos de carácter conspirativo, pseudo-histórico y esotérico (me refiero a todas estas patrañas sobre templarios, hermandades rosacruceanas y logias masónicas, entre otras), lo cierto es que en la historia reciente y pasada se han producido conspiraciones reales que la han conducido tanto por derroteros imprevistos como por otros perfectamente dirigidos. Mi intención es develar una de estas conspiraciones. Algo que ha costado más de una vida en épocas pasadas.*

*La publicación que administráis, sencilla pero con un enfoque serio y veraz, según me cuentan, parece una providencia del cielo pues a Lequeitio me han llevado mis pesquisas y lequeitianos las protagonizan.*

*Dada mi proveccta edad, no temo ya ni a la muerte ni al oprobio. Lo único que temo es no llegar al final de mi búsqueda. Evidencias que os quiero ofrecer como homenaje a mi hermano en la Societas Iesu, el lequeitiano Miguel de Ylbaseta, quien, como yo, tuvo que contravenir la codex legum que juramos cumplir en la Ratio Studiorum y demás Constituciones Ignacianas. Mi intención es restituir al archivo de los Licona los documentos sustraídos por falsos defensores de la fe, que acreditan la verdadera genealogía del hombre Iñigo López de Loyola, escritos que no afectarían en modo alguno a la santidad de Ignacio pese a que algunos han querido verlo así. Si se confirman, no deslegitimarían en absoluto a nuestro padre fundador ni como hombre ni como leal servidor de Cristo nuestro Señor.*

*Empecemos pues nuestra historia....*

## Ibasetaren legatua

“Harri honen gainean eraikiko dut nire Eliza” esan omen zion Jesusek Pedrori.

Ezaguna izango duzue hainbat mendetan egin izan den ohitura hori, “fundazio harria jartzearena”. Hasieran eraikin erlijiosoetan bakarrik egiten zena, gaur egun zoritxarrez edozein motatako eraikuntzetan erabiltzen da. Jainkoak barka biezagu!

Fundazio harri hori, harkantoia, Lapis angularis edo Primarii Lapidis, mendebaldean jartzen zen. Zizel batekin marka jakin batzuk egiten zitzaizkion (gurutzeak eta bestelakoak) eta barrua hustua zuen bertan objektu batzuk gordetzeko, **denbora-kapsula**.

Zergatik luzatzen naizen hainbat xehetasunekin? Azalpenak gehiago atzeratuko luke istorioa, hortaz nahikoa duzue jakitea duela gutxi arte “garraitzen harkantoian hiru gorapilodun axubetan” esaldiak ez zidala ezer esaten. Banekien Lekeition zegoela enigma horren erantzuna, banekien frantziskotarrerekin zerikusia zuela (hiru gorapiloak), baina ez nekien nondik hasi, batez ere nire intentzioa galdera gutxi egitea zelako, zuhur agertze aldera.

Erantzuna 2015eko uztailean aurkitu nuen, Lekeitioko kaiko taberna batean kamamila bat edaten ari nintzela. Ustekabean, “Hitza” izeneko egunkari bat zegoen mostradorean eta azalean: “Garraitz proiektua blabla eta abar eta abar”. Artikuluak zer esan nahi zuen galdetu nion zerbitzariari. Horrela jakin izan nuen irlaren izena ez zela San Nicolas, Garraitz baizik, bolondres talde bat garbiketa lan izugarriak egiten ari zela eta, besteak beste, Frantziskotarren monastegi baten aztarnak azaleratu zituztela.

Miguel de Ibasetak utzi zidan igarkizunak forma hartu zuen bat-batean. Irlara joan nintzen, errausitutako monastegiko mendebaldeko hormaren aurrean jarri, garai batean atea egon zen lekuan, eta lurra aztarrikatzen hasi nintzen gurutzez markatutako harria aurkitu arte. Barruan, “denbora-kapsula” *capsula tempi* profanatuaren barruan, Ibasetak niretzat utzi zuen metalezko zilindro bat aurkitu nuen. Berak ere, nik baino berrehun eta hogeitau urte lehenago, monastegiak hondatutako lau horma eta zerua sabaitzat zituela, harkantoia hustu eta bertan gorde zituen paper eta agiriak. Mende bi eta erdi egon ziren nire zain.

Azkarregi ari naiz, oraindik aztoratuta, hunkituta nago. Arnasa hartu, baretu eta buelta gaitzean hasierara.

Kapsula-denboraren gaiak mesfidantza sor dezakela aitortu behar dut, “El código da Vinci” eta antzeko nobelatxo merkeek dute errua. Ez nator ni inozoak engainatzera, zuon basilika zoragarriak ere baditu (ziurrenik bat baino gehiago) bere lapis angularisak eta kapsula tempiak. Hona hemen 1881ekoa:

*Por ultimo acuerdo el Ayuntamiento se consignase en este acta el manuscrito que con motivo de la colocacion de la primera piedra en las obras de la Parroquial, se encerro en un hueco de la misma el dia 15 del corriente mes, con toda solemnidad y previa bendicion de la obra por el Sr Cura Arcipreste de esta Yglesia. Dicho manuscrito, conmemorativo del acto á que se refiere decia asi “El presente manuscrito tiene por objeto delatar en la memoria de las sucesivas generaciones la munificencia y caridad acendrada del benemerito patricio Sr. Don Pascual de Abaroa y Uribarren, digno imitador de los pios sentimientos que animaron a sus*

*finados tio y hermano respectivamente el Excmo. Sr. Don José Javier de Uribarren y Marcuerquiaga y Don José Luis de Abaroa y Uribarren, cuyos sentimientos beneficos emulando, costea, en obsequio á su pueblo natal, las importantisimas obras de modificacion de la Yglesia parroquial Matriz de Sta. Maria de Lequeitio; llevados a efecto bajo la direccion facultativa de Don Casto de Zavala por el contratista Don Hilario de Arrinda; rigiendo el Orbe Católico la Santidad de Leon XIII en el reinado de Don Alfonso XII, siendo obispo de la Diocesis el Yltmo. señor Don Mariano Gomez, Gobernador civil de la provincia Don Andres Gazquez y Doral; Presidente del municipio Don José Antonio de Amias, Sindico Don Román de Urriz, Cura Arcipreste Don Toribio de Guerricabeitia y Mayordomo de la Cofradia de mareantes cuya inscripcion cuenta veintisiete lanchas de altura y once traineras, Don José Maria de Bengoechea, Lequeitio 15 de Agosto 1.881”*  
18-8-1881 LUA Udal aktak



Garraitz irlako monastegiko aztarnak.

## Ben Trovato

Miguel de Ibaseta eta Juan Ramón de Iturriza dira gure ikerketaren protagonista nagusiak. Jakin badakizuen arren, hasteko, historiografia ofizialak bakoitzari buruz dioena kontatuko dizuet, labor-labor, batipat, itxura batean behintzat, gehiegi ez dagoelako esateko. Batez ere Ibasetaren kasuan.

## Miguel de Ibaseta

Likonatarren oinordeko edo premua Lekeitio (Bizkaia) jaio zen 1719ko maiatzaren 27an, eta egun berean baina 1737an, Jesusen Lagundian sartu zen. 1749an Ameriketara joan zen misioetara, Guajirako lurraldera lehenengo eta handik Venezuelako Orinokoko erredukzio jesuitarretara. 1755an bere arrastoa galdu zen eta hiltzat jo zuten.

Aipatzekoa da Otomakoekin, Orinokoko indigena tribu batekin egin zuen lana. Otomakoak taparita etniakoak ziren, eta Ibasetaren garaian Apure-ko lurraldean bizi ziren, Orinoko ibaiaren urertzean. Bitxikeria bezala esan dezakegu, Miguel de Ibasetak euskara eta otomakoekin hizkuntzaren arteko konparaketa bat idatzi zuela, "Ensayo de una comparacion entre el otomaco y el vasco". Zoritxarrez galduta dago.

## Juan Ramon de Iturriza

Juan Ramon de Iturrizari buruz dakiguna, edo dakigula uste duguna behintzat, zertxobait gehiago da. Iturriza, historialari eta artxibozain bizkaitarra zen, Berrizko Olakuetako San Antonio auzoan jaio zen 1741eko apirilaren 29an. Historia ofizialak dioenez Munitibarren zendu zen 1812. urtean 71 urte zituela.


Aita herriko maisu landatar xume bat zuen. 14 urte bete zituenean idazkari edo amanuense lanetan hasi zen batez ere artxiboetako izkribu edo kopiazaile bezala. 1760an Mexikora emigratu zuen, non bere osabarenean lanean hasi zen. Okina zen.

1769an Espainiara bueltatu zen. 1777ra bitartean bere arrastoa ez da argia, baina badakigu Burtzeña, Madril, Zaragozan, Santiago de Compostela eta Erroman ibili zela. 1777an artxibolari eta historialari lanetan agertzen zaigu berriro. Ez zen sekula ezkondu. 1812an zendu arte artxiboak ordenatzen eta ikertzen aritu zen.


Bitartean liburu erlijiosoak eta historikoak idatzi zituen. Hiruzpalau azpimarratzearen "Lucero Espiritual", "Manual cristiano", edo "Historia General de Vizcaya" entzutetsua. Beste bat aipatzekotan "Antigüedades de Vizcaya", 12 liburukitan banatu zuena nahiz eta 6 baino ez zaizkigun iritsi.



"El Orinoco ilustrado y defendido..." Joseph Gumilla 1791ko edizioa.



J. R. Iturrizaren Lekeitioko artxiboaren aurkibidea, 1796. LUA.



J. R. Iturrizaren lanaren kontua, 1796. LUA, R91.



## Vero

Hau da dakiguna, jakinarazi nahi digutena, baina bistan da hutsune eta akats ugari daudela bi biografietan. Iturrizarena, denok jakingo duzuen legez, berak eraiki zuen –idatzi baino egokiagoa da eraiki hitza–.

Miguel Ibasetarena oso-oso nabarmena da: nola liteke Likonatarren oinordekoa, bere erregaliak eta gizarte-maila bazter utzi eta fraide sartu izana, oinordekotza arrebari utzi ondoren. Garai hartan anaia bati utzi izan balio behintzat! Zer arrazoi handi zegoen gurasoek horretarako baimena emateko?

Juan Ramon de Iturrizari dagokionez berriz, hutsuneak ez dira txikiagoak. Nola liteke maisu txiro baten semeak halako gaitasunak izatea? Nola Bizkaiko familia boteretsuenen artxibozain izatera iristea? Ez zegoen Bizkaia osoan artxibo garrantzitsurik bere eskuetatik pasa ez zenik. Are gehiago, historialari eta ikertzaile ospetsuena izatera iritsi zen. Nola, Mexikora emigratu zuenean okindegiko labe batean lan egin behar izan zuen gizonak?

Jesusen Lagundian Teologia eta Filosofia ikasketak aspaldi bukatu nituelarik, historiako tesia prestatzen ari nintzen. Aukeratutako gaia Orinokoko eta Meta lurraldeetako “erredukzioetan” jesuitek egindako izugarritzko\* lana zen. Zuo! ez dizuet azalduko zer zen erredukzioa, idatzi hau argitaratuko bazenute, aipa iezaezue “La misión” pelikula zoragarria irakurleei. Misiolariak eta indigenak elkarlanean bat egin da, zer ederra! Ez zaigu orduko dokumenturik falta, izan ere jesulagunen kanporatze miserablea Orinokoko misioetara iritsi zenerako, dena koba-zuloetan gordeta geneukan zorionez. 1814an Pio VII. Aita Santuak Jesusen Lagundiaren kanporatzea baliogabetu zuenean, *Sollicitudo Omnium Ecclesiarum* bularen bitartez, Lagundiak artxibo guztiak berreskuratu zituen gordeta zeuden haizuloetatik. Lagundia akabatuko duen agintaririk ez da jaiola!

\* *Improbo erdal testu orijinalean.*



## Kobeagaren gutuna

Eta agiri artean nenbilen gure artxiboko paper-menditean sartuta, galduta, eskutitz bat aurkitu nuenean. Eskutitz pribatua zen. Badirudi artxiboak arrapaladan gorde ziztuztenean bertan nahastuta geratu zela.

Beste lekeitiar bat aurkeztu behar dizuet, Juan de Cobeaga. Jakinmina sortu zidan hirugarren aktore honek. 1723an jaio zen Lekeitio eta berandu baina jesuita sartu zen 1755ean, eta non eta Teplotzotanen, Mexicon. 1757an Habanara bidali zuten eta han harrapatu zuen 1767an jesuiten kanporatzeak. Miguel Ibasetaren laguna zela karta honek baieztatzen du. Karta 1768ko azaroan idatzi zuen Kobeagak. Ez dakigu nori, dokumentua egoera txarrean baitago, baina euskalduna zen hartzailea euskara gutxi baina erabili baitzuen.

Kobeagak bertan dienez Miguel de Ibaseta oso atsekabetuta iritsi zen urte batzuk lehenago Orinokoko misiora (fede-krisiren bat ote zuen uste zuen Kobeagak). Baina Ibasetaren izaera zabalari esker, laster lortu zuen otomakoaren konfidantza eta jarrera erabat aldatu zuen. Baliteke euskal

pilotaren antzeko otomakoaren joko batean oso trebea izateak lagundu izana. Baliteke baita euskararen eta otomakoaren arteko antzekotasunak haren egarri intelektualak piztea. Filippo Salvatore Gili jesuita eta linguista bikain italiarrak bazekien honen ahaleginez.

Otomakoaren ohiturak eta hizkuntza hobeto ikaste aldera erredukzioetik kanpoko herrirka otomako batera joan zen denboraldi baterako. Deabruaren tentaziotik ezin ihes egin eta haurdun utzi zuen Omawë izeneko emakume gazte bat. Fede handiko gizona bazen ere desmasia hura egin ondoren, Lagundiaren izen ona gehiago ez zikintzeko asmotan, abitua uztea erabaki zuen. Ez zuen astirik izan, herrirka suntsitu egin zuten etsaiek. Kobeagak ez du argitzen Karibeak izan ziren, baina hala uste dugu Karibe tribuak eta Otomakoak etengabeko borrokan bizi zirelako. Miguel ez zuten hil, akaso erlijio-gizontzat hartu zutelako, baina bai Omawë eta herritar guztiak. Zorte handia izan zuen karibeek esklabu, poitos hango hizkuntzan, bihurtzen baitzituzten suntsitutako etsaiak gero holandesei saltzeko asmoz.

Ibasetak zauri espiritualak eta fisikoak sendatu zituztenean Mexicora alde egin zuen. Bitartean "Inmaculada Concepción" misioan hiltzat jo zuten. Ez zitzaion interesa ezta komeni oker hori zuzentzea eta Tepotzotlanerantz abiatu zen bazeki-elako Juan de Cobeaga lekeitiarrak jesuita bihurtu behar zuela. Laguntza handia eman zion herrikideak garai latz horietan. 1757an Juan Habanako kolegiara bidali zuten eta Miguel Mexiko hiriburuan geratu zen San Ildefonso kolegioan. Zelan ez ziren konturatu "hilda" zegoela Miguel Ibaseta? Ia 6.000 kilometrok eta orduko burokrazia astunak hala-koak gertatzea errazten zituen.


Kobeaga eta Ibaseta lagunminak zirela ez dago dudarik. Sekretu guztiak kontatzen zizkion Ibasetak. Kontua da, azkenean ere, Iturriza agertuko dela istorio honetan. 1760an Mexicora egin zuen (geroago jakingo dugu bere asmoa zein zen) eta okindegi batean egin zuen lan. 1766an San Ildefonso kolegiara joan behar izan zuen eta han aurkitu zuen hilik egon behar zuen lekeitiarra. Miguelen gazte itxura ezaguna zen, 17 urte ez ziren haren aurpegia aldatzeko gauza izan.

Xantaia hasiera batean neurrizkoa izan zen, liburukote aspergarri bat "Lucero espiritual" otoiitz-liburua. Ibasetak idatzi zuen eta Iturrizak sinatu. Animatu egin zen Iturriza, gaztea zen, eta xantaia gogortzen hasi zen. Jesuiten kanporaketa heldu zen eta Iturriza, diru barik osabak ez baitzion ezer utzi, harrapakinaren atzetik joan zen Habanara. 1768an geunden. Gutunak ez digu argitzen Habanan gertatutakoa, baina dagoeneko sumatuko zenuten zer gertatu zen, jakina da xantaiek duten amaiera.

Izkina batean erdi ezkutaturik agertzen zen esaldi hura **"garraitzen harkantoian hiru gorapilodun axubetan"**.



"Saggio di storia Americana" 1780-84. Filippo Salvatore Gili (Gill) legez ere agertzen da) Ezkerraldean dagoen indigena baliteke otamako izatea. Manatia, krokodiloa...



"El Orinoco ilustrado y defendido..." Joseph Gumilla, 1741.

HISTORIA NATURAL. 105  
 en asueto, y holgueta, con la pensión cierta de que el dia siguiente se figuen ellos à pescar, y à trabajar, para que descanfen los que andan oy en el trabajo, y pesca. Luego concurre toda la gente residua à un hermoso, y muy limpio trinquete de pelota, que tienen en la cercanía de su Pueblo, algo apartado de las casas, doce de un vando, y doce de otro: ponen en deposito la apuesta que han de perder, ò ganar, y concluido aquel juego, se buelve à poner la apuesta para otro: no juegan solo por jugar, sino por el interès, y depositan, quando le hai, canasticos de maiz: à falta de este, depositan sartas de quantas de vidrio, y todo quanto hai en sus casas, si es menester, lo juegan alegremente. Hai sus Jueces viejos señalados, para declarar si hai falta, si ganó, ò perdió raya? y para resolver las dudas, y porfias ocurrentes: fuera de los que juegan en los dos partidos, la demás gente, dividida en vandos, apuestan unos à favor de uno, otros à favor del otro partido. Tienen su modo de jugar, y su rechace con tanta forma-

*Los que restan juegan à la pelota.*

*La apuesta se deposita.*

*Raro modo de jugar.*

106 EL ORINOCO ILUSTRADO,  
 de mayor admiracion, al venir una pelota arrastrando, vèr arrojarse aquel Indio contra ella con todo el cuerpo: al modo con que suelen arrojarse al agua para nadar, del mismo modo dan con todo el cuerpo contra el suelo, y con el hombro levantan por estos ayres otra vez la pelota. De este repetido exercicio crian callos durissimos en el hombro derecho, y juntamente una singular destreza en el juego. Jamàs pensè, que entre tales gentes cupiera tal divertimento, con tanta regularidad: y despues de escrito esto hallo, que en las Misiones de la Nueva España, los Indios Acaxeés, de la Serranía de Topia, que están à cargo de la Compania de Jesus, tenian, y aún usan, el mismo juego de Pelota. (A)

Durante el juego hasta medio dia, se ocupan las mugeres en hacer ollas de barro muy fino para si, y para vender à las Naciones vecinas, platos, escudillas, &c. pero su mayor ocupacion es texer curiosa, y futilmente eferas, mantos, canastos, talegos, ò facos del cañamo, ò pita, que hacen de una forma...

## 1767ko Jesuiten kanporatzea

Beharbada ez da jesulagun umil hau aproposena gai honetaz idazteko, baina irakurleak ez luke ulertuko datorena ez badiogu garai hura azaltzen. Gu ginen XVIII. mende horretan ordena erlijiosorik garrantzitsuena, beste guztien inbidia pizten zuena. Bestalde Aita Santuari zor genion leialtasun itsua (laugarren botoa, obediencia) ez zen orduko agintarien gustuko. Politika erregalistaren aurka zegoen indar bakarra ginen. Esquilacheren motina, errege-hilketa sustatzen genuela... edozerk balio zuen gutaz libratzeko eta oraindik hemen gaude eta urte askotarako, Jainkoari eta Aita Santuari zerbitzatzeko.

1767an kanporatu gintuzten Espainiako lurralde guztietatik. Ezer lortu zuten? Bai horixe, milaka jesulagunen eta euren familien bizitzak suntsitu zituzten. Despotismo ilustratua, hipokresia maximoa. Fedegabe ilustratuak guri lezioak eman nahirik. Nork kristautu eta hezi zituen Indietan hango indigenak? Nork jesuitok baino hobeto? Nork defendatu zituen guaraniak Espainiako eta Portugaleko koroen kontra? Ordaindu genuen bai, larrutik. 1756an amaitu zen guaranien gerra hori, 1759an Portugaleko erregeak kanporatu gintuen, 1762an Frantziakoak, 1767an Espainiakoak eta 1773an Aita Santuak, Clemente XIV.ak, errematatu gintuen.

Misio horietan –“reducciones” hitza erabiltzen da– ibili zen gure Miguel Ibaseta eta Mexikon zegoen kanporatze agindua heldu zenean. Hego Amerika osoko jesuitak eraman zituzten Habanara abereak eramaten diren antzera, eta ez ziren gutxi izan gaisotu eta hil zirenak edo bere buruaz beste egin zutenak. Erregeak arditxoak nahi zituen eta arditxoak dirua noski. Etsipena zen nagusi Habanan, Iturrizak ez zuen ondo kalkulatu.




Expulsion et Embarquement des Jésuites des États d'Espagne. D... Ordre de S.M. C. le 31 Mars 1767.


Jesuiten kanporatzea.  
1767. Gallica, BNF.



Garaiko dokumentuak, euren artean 1767ko Pragmatica Sanción ospetsua.



“La Misión” pelikula. Roland Joffé, 1986.



“Ensemble de gravures relatives à la suppression de l'ordre des Jésuites ...”, Montulay, François, 1759-64. Gallica, BNF.

## Jakin-mina, denbora-kapsula

Ez nuen orduan ulertu, baina zuen herriko egunkaritzo batek zabaldu zizkidan begiak. Hemendik aurrera kontatuko dizuedana Garraitz irlan aurkitutako “denboraren kapsulan” gordeta zeuden aitorten-eskutizetatik atera izan dut. Badakit esango dudana sinesgaitza dela, baina badituzuen esku utziko ditudan frogak behar izanez gero. Errealitateak fikzioa gainditzen du!



Argi dago honet  
rokanrola\* ehal  
gustuko!

Juan Ramón de Iturrizak 8 urte zituen Miguel de Ibasetaren etxera morroi joan zenean, 1749a zen. Ordurako Ibasetak 11 urte zeramatzan Jesusen Lagundian. Lantzean behin joaten zen Lekeitioko bere oinetxera, batez ere Likonatarren artxiboetan murgiltzera eta Iturriza mutikoa laguntzaille bezala erabiltzen zuen artxiboan, azkarra baitzen, baita bere ustez, malezia-



Aragoiko Fernando II. Egile ezezaguna. c. 1500.

gabeko mutikoa. Iturriza txikiak Ibasetaren ondoan ikasi zuena urte eta erdian, eskolan 10 urte-tan ikasiko zuena baino gehiago izan zen. Mutikoa azkarregia zen, San Ignazio santuaren paperak non gordetzen zituen konturatu zen. Giltzapean eta oholpean, ez zen normala.

Ez zen normala, ezta, etxe horretako gizonak biak abadeak izatea. Jakin-minak mugitzen du mundua. Iturrizarena eutsiezina zen. Zoritxarrez, ez zen gelditu misterio hura argitu arte. Jakin-egarri horrek ondorio negargarriak ekarriko zituen. Jainkoaren bideak ezin asmatuzkoak dira. Familiak paperok agertu ziren eguna madarikatzen zuen.

1715ean ezkondu ziren Juan Fernando de Ibaseta Bustinzur-

ria eta M<sup>a</sup> Micaela Olave Licona. Ezkontza ederra, diru eta lustredun familiak batzen zirelako. San Iñazio deunaren familia, ez gehiago ez gutxiago. 1718an Garcia Licona Azterrica, Loiolako San Iñaziori aititak, Likona dorrean zuela jatorria frogatu zuten. 1719an jaio zen oinordekoa Miguel eta 1727an Likonako dorrea dotoretu behar zela eta, ditxosozko obrak egin zituzten. Martin Azkarraga harginak aurkitu zuen kaxa zahar hura. Etxean irakurri zutena ez zuen sekula Miguelek ahaztu. Lur jota geratu zen familia. Ignazio Deunaren ama, Doña Marina Sáez de Licona, Likonatarra bera Miguel Ibaseta bezala, Aragoiko Fernando II-ak haurdun utzi zuen 1490. urtean. Bai, Fernando katolikoak, Gaztelako Isabel I-aren enarrak.

Ez zaitezte aztoratu, zergatik esango zuen Ibasetak euren kalterako zen halako astakeria? Zergatik utzi zuten anaia biek oinordetza arrebaren eskuetan? Pekatuak garbitzeko, ezin zen ohorea galdu garai hartan.

Loiolako Iñigo 1491an jaioko zen. Horrelako kasuetan ohikoa zen bezala, familiek konponketa bat egin zuten isilean, hain zuzen ere, Fernando erregeak zehaztu gabeko diru kopuru bat eta erregaliak eskaini zizkion Beltrán Yáñez de Oñáz y Loyolari, Iñigori aitatasuna emango zion gizonari.

Ildora bueltatuz, Miguelentzat, Trentoko Kontzilioaren ondorengo arau zorrotzetan hezitutakoarentzat, kolpe handia izan zen San Ignazio seme naturala\* zela jakitea. Erregearena zela jakiteak ez zuen kontsolatzen. Lekeitiok jesuiten kolegiotxo bat zuenez, berehala erabaki zuen jesuita izango zela. 1737an Villagarcía de Camposera joan zen jesuita izatera. Oinetxera bueltatzen zen bakoitzean, dokumentu madarikatu hura behin eta berriro begiratzen zuen; Ameriketara joan zen urtean, 1749an, Iturriza mutikoaren aurrean. Gero gertatu zena Orinoko aldean eta Mexikon dagoeneko ezagutzen dugu.

Bitartean Iturrizak probetxu gutxiko lantxoak izan zituen. Mexikora joan baino pare bat hile lehenago Likona dorrera bueltatu zen eta han aurkitu zuen aberats egingo zuen agiria. Zorua!

1760an Mexikora joan zen, osabaren okindegian lan egitera. Bazekien Juan Kobega Miguelen lagun hurkoa hara joana zela eta honen bitartez Miguel aurkituko zuelakoan zegoen. Ez bata ez bestea. 1766an, azkenean, aurkitu



Loiolako Ignazio deuna.

\*hijo espureo testu orijinalean



zuen Miguel. Ez zen mutiko txarra Iturriza, baina ospea zuen gogoko, dirua ez hainbeste. Zorionez jesuitak 1768an Mexikotik bota zituzten, baina lbasetak pentsatu bazuen Iturrizaren xantaia amaitu egingo zela oker zegoen. Osaba hil eta diru barik ikusi zuenean bere burua, Habanara joan zen. lbasetak hil zuen, Jainkoak barka biezaio, eta Kobeagak lagundu. 1769ko otsailean Cadizera heldu zen. Iturriza berri bat bueltatu zen, ez zuen alferrik galdu bizitzak eman zion aukera. Kobeagak berriz, ez zuen zortetik izan eta Bolonian hil zen erbesteratuta 1775ean.

Hurrengo zortzi urteetan handik hona eta hemendik hara ibili zen. Zuhurra izan behar zuen. Aurrerantzean, 1812ra arte, hau da 93 urte bete zituen arte, Miguel de lbasetak Ramon de Iturrizaren izenpean Bizkaiako artxibo guztiak arakatu zituen bere sekretuaren aztarnarik ez zegoela ziur egon arte. 1795. urtea zen, gerran geunden frantsesen aurka, garai ilun eta arrisurtsuak ziren, Ondarroa aurreko urtean erre zuten. Eta eginahalak egin arren sekretua azaleratzen bazen? Nork sinetsiko zuen jesuita hiltzaile eta, maltzur baten hitza? Ez zegoen bere ohorea jokoan, familiara baizik. Are gehiago, Jesulagunen Lagundia eta azken finean kristautasuna orokorrean zeuden arriskuan. Besterik ezean ahotik sekula ere ez, baina bere eskutik jakin behar zen istorioa. Bazekien non gorde dokumentuak. Garraitzeko ermita- komentua hondatu zen urte hartan. Tamalez, ez zen inozoa, erregearen dokumentua falta zaigu.

*El día diez de Septiembre de mil Hochocientos y doze á luego de media noche murió Dn Juan Ramon de Yturiza de edad de setenta y un años cumplidos (93 urte zerraldoa lbasetarena zela kontuan hartzen badugu) de estado celibato natural de Berriz (Lekeitio esan beharra egongo da), y parroquiano de esta, habiendo en su ultima enfermedad recibido los Santos Sacramentos de penitencia, Viático y extremauncion, y el mismo dia por la tarde á disposicion del fisico fuè enterrado su cuerpo en esta Parroquial por mandato dela Tropa española, que prohibió enterrarse alguno en el campo, hasta que huviese otra disposicion del Gobierno español; tenía dispuesto su testamento cerrado, y por ser verdad firmè yo el infraescripto Beneficiado y Cura.*

[Firmado] Dn Manuel Guerricaveitia

[Al margen] Juan Manuel Yturiza

Cumplido

Bigarren honetan benetan hil zen Miguel. Gorpua aurkitzen dugunean, Likonatarrean lapurtu zuten dokumentua aurkituko dugulakoan nago. Gorpuk Lekeitio egon behar du.

Ez dugu testamendurik. Izan bagenu ere, ez zuen eskribauaren aurrean egia esango. Non dago gorpuzkia? Nire susmoen arabera, hiru lekutan egon daiteke: Santa Maria Jasokundearen basilikan, Jesusen Lagundiaren elizan edota Santo Domingo komentuan.

Ez dakit misterio hau argitzeko denborarik izango dudana. Miguel de lbasetak bere eskutik idatzitako lerroetan egon behar du erantzunak. Jainkoak gida nazala!

Ez dugu txorakeriarik bultzatu nahi, baina jesuita anonimo honi laguntza eskertu nahi diogu, begira ezazu familiako Santa Ana kaperan.

## Nacimiento, Patria y Peregrinaciones de JUAN RAMÓN DE ITURRIZA

NOTA.—Esta copia está sacada de un manuscrito de Juan Ramón de Iturriza, que con otros varios escritos de su puño y letra, forman uno de los DOCE volúmenes que hizo este historiador.

El citado volumen, que es el que lleva el número 10, existe en el Archivo de la Casa de Mugartegui en la Villa de Marquina.

Marquina á 1 de Mayo de 1920.


Juan J. de Mugartegui.

1.—En 29 de Abril de 1741, á las ocho horas de su tarde, nació Juan Ramón de Iturriza en el barrio de San Antonio de Olacueta, de la anteiglesia de Berriz, Merindad de Durango, y fué bautizado en 30 dias de dicho mes por D. Miguel de Duñabeitia, Cura y Beneficiado en la Parroquial de San Juan Evangelista, siendo sus padrinos Juan Matias de Uribe y Marina de de Mallagarai, su consorte.

2.—Fué hijo legítimo de Phelipe de Iturriza y Catalina de Gárate Zavala y nieto de San Juan de Iturriza y Catalina de Luzar, naturales de la Anteiglesia de Cenarruza y su Puebla de Bolibar.

3.—Hasta la edad de tres años se mantuvo en Berriz, de donde vino á la Puebla de Bolibar con sus padres, con quienes estuvo en ella asta los catorce de su Pubertad, aprendiendo las primeras letras con el Magisterio de su padre, y pasando el tiempo en las trabesuras que son propias de la juventud.

4.—En dicha época pasó á la Puebla de Aulestia, donde estuvo de amanuense en una corta temporada en casa de Juan



Lekeitioko Santa Maria elizako plano. Pascual Abaroaren erreformaren aurrekoa.

## Erredakzioaren oharra

Rotia Ebrutiren laguntzaz dokumentu batzuk batu ditugu, Loiolako Iñazio deuna seme naturala zenik burutik ere ez zaigu pasatu, baina Ibaseta Iturriza zela ez da txorakeria bat.

Arrazoa du jesuita anonimo honek Iturrizaren gaitasuna zalantzan jartzen duenean. XIV. edo XV. mendeko dokumentuak, latinez askotan, irakurtzeko gai zela latinitateko eskolara ere joan ez zen mutiko bat? Okin bat errezu- liburuak idazten?

Zergatik agertzen da 1755ean hildakoaren izena Habanako 1768ko portuko zerrendan? Zergatik dago dokumentua apurtuta izena dagoen lekuan? Zergatik hainbesteko amorrua berriro ere erlijio ordena batean sartzeko? Eta zergatik ez zuten onartu? Jesuita izandakoa zelako?

Zergatik hainbeste erromesaldi? Pekatuak garbitzeko?

Zergatik joan zen Erromara, jesuitez betetako lurraldera? Kuasalitatea ote, Kobeaga 1775eko apirilean hiltzea eta bera maiatzean heltzea hara? Berandu heldu al zen gaisorik zegoen lagun-minari azken agurra ematera?

Zergatik idatzi zuen beste otoitz-liburu bat "Manual Cristiano" 1774an?

Zergatik antolatu zituen Bizkaiko artxiborik garrantzitsuenetarikook? Zergatik Lekeitiokoa, Kofradiakoa, Likonatarrena eta Renteriatarrena? Berrogeita hiru artxibo sailkatu zituen, zergatik ez Yarzatarrena? Akaso Erdi Arotik zetorren familia bien arteko gorrotoa mantentzen zelako. Badakigu Ramona María de Cenica, Fernando Adan de Yarzaren emaztearen papearak antolatu zituela. Bilboko etxea zapalduko zuen, Zubieta seguru ezetz. Santa Maria elizako eta Dominiketako artxiboak ez zituen antolatu. Baze-kitelako jesuita zela?

1795 Yten: *el Archivo de la villa de Lequeitio en el de 1795 con 80 volumenes de escrituras y un indice escrito.*

1796 Yten: *la Papelera de Don Joseph Joaquin de Colmenares, vecino de Lequeitio en el de 1796, con 40 volumenes de escrituras y tres indices escritos.*

1801 *El Archibo de la Cofradia de Mareantes de Lequeitio en 1801, con 20 volumenes de escrituras y un indice escrito.*

1802 Yten: *La papelera de Don Joseph Agustín Ibañez de la Renteria vecino de la Villa de Bilbao el año 1802, con 8 volumenes de escrituras y un indice escrito. Non ete dago?*

Zergatik Colmenares-Licona artxiboan desagertu ziren dokumentu guztiek Loiolako San Iñaziorrekin dute zerikusia? Ondarrutarren bat? Baliteke

### Archivo Colmenares Legajo 1 n° 7

*Arbol genealógico de los Licona desde Martin Perez Licona que se estableció en la villa de Ondarroa en 1414 y fue bisabuelo de San Ignacio de Loyola...*

4 legajo desagertuta daude, lehenengo hau noski, eta 4., 5., eta 6. Denak Likonatarrekin zerikusia dutenak, beste familia edo maiorazgo batzuetakook ez dira galdu. Ez diogu guk bakarrik, Alejandro Gomez Guerrerok 55. oharrean zera dio: *Yndice y extractos de las Esras. pertenecientes al Vínculo y Mayorazgo de Licona, fundado por D<sup>a</sup> Ana de Licona su hija en 21 de Abril de 1699, cuio actual posehedor es Dn Jose Joaquin de Colmenares e Iturralde vecino de la N. Villa de Lequeitio. Año de 1796. Este índice es, lamentablemente, la única referencia conservada en la actualidad de gran parte de los documentos notariales relacionados con los Licona. Salvo los libros correspondientes a los registros 2 y 3, el resto desaparecieron del archivo de la familia Colmenares a lo largo del siglo XIX. La abundancia de documentos relativos a la familia materna de San Ignacio de Loyola en los tomos correspondientes a*

*los registros 1, 4, 5 y 6, precisamente los no conservados, podría tener alguna relación con su desaparición.*

*Beste hau ere desagertuta dago: 1718 Entroncamiento del muy ilustre Dn Garcia de Licona y Azerrica abuelo materno de San Ignacio de Loyola y Licona en las muy ilustres casas y torre de Licona de la villa de Lequeitio y de Azerrica de las de Ondarroa.*

Zer egiten zuen Iturrizak Habanan garai hartan? Ezin izan zuen lehentxoago edo beranduxeago bueltatu etxera?

Nola zen posible zentimo barik bueltatu bazen etxera 5.649 erreale ematea arrebari dote bezala? 1768-04-03an osaba Gabriel de Zavala hil zenean ez zuen ezer hartu (de quien heredo unicamente una chupa vieja de tisu que vendio en el baratillo de Mexico en ocho pesos). Baliteke familia jakinaren gainean egotea eta akordio honekin erremediorik ez zuen gaitzari onura ekonomikoa behintzat ateratzea.

Gainera, denbora-kapsularen argazkia dugu. Analizatu ondoren badirudi garai horretakoa dela. Idazle anonimoari dokumentuak eurak eskatuko genizkioke. Hala baieztatuko genuke dokumentuok garaikoak eta benetakook diren.

Bestalde Omawe emakumea agertzen den eskuizkribua ere ordukoa dela baieztatu dezakegu. Inguruan agertzen den hiztegitxoa aita Lucenak, fraide kaputxinoa, prestatu zuenarekin konparatu dugu eta ez dago dudarik, otomakoa da. "Traducción de la lengua española a la otomaca" manuscrito 2.927. Padre Gerónimo José de Lucena, 1787. Biblioteca del Palacio Real de Madrid.

Beharbada hau ere Ibasetaren ikerketaz baliatu zen.

Amaitzeko txikikeria bat:

1795ean hondatu zela komentua ez da edonork ezagutzen duen datua, Iturriza-Ibasetak berak aipatzen du ohartxo batean. Ezin izan dugu beste inon aurkitu datu hori. Zelan jakingo zuen hori gure idazle anonimoak? 1795ean hondatu zen ermita/komentua. Iturrizak hala dio "Deskribapen anonimoa"ri egindako ohar batean "Se demolio dicha hermita el año de 1795 con el motivo de la guerra que ubo con el frances" LUA R 48, 8r.



Badaezpada, hor duzue Likonatarren artxiboan ostutako legajoak izan behar zuten itxura azalak ez badizkiote aldatu. Aukera bi antzematen ditugu: ondarrutarra ala jesuita, egon-egon, ondarrutarra eta jesuita?



### 3 "Biblioteca de escritores jesuitas neogranadinos" José del Rey Fajardo, 2006 Bogota.

**IBASETA, Miguel (1719-1755)<sup>1</sup>.** (Etiam: IBAZETA).

I. Nació en Lequeitio (Vizcaya) el 27 de mayo de 1719 e ingresó en la Compañía de Jesús el 27 de mayo de 1737<sup>2</sup>. Realizó sus estudios de Filosofía y Teología dentro de la Orden<sup>3</sup>. Atravesó el Atlántico en 1749 en la expedición que venía a encargarse de la Misión de la Guajira<sup>4</sup>. Tras esperar algún tiempo en Cartagena fue destinado al colegio de Honda en 1751<sup>5</sup>. Pasó después a las misiones del Orinoco y en 1753 misionaba a los otomacos de la Inmaculada Concepción<sup>6</sup>. El 16 de junio de 1755 le sorprendió la muerte en las reducciones orinoquenses<sup>7</sup>.

#### II. Escribió:

A. *Ensayo de una comparación entre el otomaco y el vasco*<sup>8</sup>.

- <sup>1</sup> ARSI. N. R. et Q., 4. Catálogos de la Provincia del Nuevo Reino: 1751-1753.
- <sup>2</sup> ARSI. N. R. et Q., 4, fol., 314. Catálogo de 1753.
- <sup>3</sup> ARSI. N. R. et Q., 4, fol., 314.
- <sup>4</sup> AGI. *Contratación*, 5549. Expedición de 1749. Antonio JULIAN. *La perla de América*. Bogotá (1951) 231-240.
- <sup>5</sup> ARSI. N. R. et Q., 4, fol., 299. Catálogo Breve de 1751.
- <sup>6</sup> ARSI. N. R. et Q., 4, fol., 301v. Catálogo Breve de 1753.
- <sup>7</sup> ARSI. N. R. et Q., 4, fol., 332v. *Supplementum primi et secundi Catalogi Provinciae Novi Regni Societatis Jesu confectum a 25 Julii 1754 ad 15 Junii 1755 et ad 11 Julii ejudem anni*.
- <sup>8</sup> GILIJ. *Ob. cit.*, III, 131: "El P. Ibaseta, que era vizcaino y fue misionero de los otomacos, me lo dijo más de una vez. Aunque como murió al principio de su carrera apostólica, no pudo hacer una comparación completa".

## Egiari zor

Azken momentuko albistea.

[*Lista de los jesuitas expulsados de Indias, llegados al Puerto de Santa María. Puerto de Santa María, 30 de junio de 1769*] Uruburu de Toro, Francisco 1769. BDH MSS/12870

Miguel de Ybarburu delako bat San Yldefonso kolegioko kidea bera, agertzen da zerrenda horretan. Baliteke, hasiera bera dutenez, Ybaseta abizenarekin nahastea. Ez da baztertu behar aztarna hau, baina edozein modutan ez ditu beste argudioak ezeztatzen. Ibarburuz jakin nahi izan dugu, baina ez dugu apenas ezer aurkitu, arraro samarra kontuan badugu jesuitak biografiak idazten egoten zirela egun santu osoan. Kobeagari buruz ere antzekoa gertatu zitzaigun "Son muy escuetas las noticias que hay sobre la vida de nuestro Juan de Cobeaga...".

TO BE CONTINUED

